



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2020**

**Jarduera Fisikoa
eta Kirola**

2022ko otsailaren 7an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Jarduera Fisikoa eta Kirola



mugiment

pertsona aktiboak

1. HASIERA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren lan-eremuak lotura zuzena du pertsonen osasunarekin, eta Mugiment da lotura handiena duen ekimena.

Mugiment euskal gizarte aktiboa lortzeko proiektu kolaboratibo bat da.

Jarduera fisikoa areagotzeko eta sedentarismoa murrizteko ekimenak bateratzen ditu, pertsona ez-aktiboak aktibo bihurtzeko neurriak lehenetsiz.

Mugimenten, parte-hartzea irekia da. Mugiment proiektuan, jarduera fisikoa sustatzearen alde lan egiten duten eragile guztiek parte har dezakete, Mugiment sustatzaile bihurtuta.

Jarduera fisikorik eza eta sedentarismoa arazoak dira munduan, bai eta gure gizartean ere. Pertsona inaktiboak aktibo egiteko, bi ekimen nabarmendu nahi ditugu: **Mugiment sareak eta jarduera fisikoaren inguruko orientazio zerbitzuak.**

Mugiment sareak besteak beste jarduera fisikoa sustatzea helburu duten sektore arteko lantaldeak dira. Sare horiek tokikoak dira, eta Mugimentek presente egon behar du sarea osatzen duten eragileen artean.

Mugiment sareak lehenetsia dira Mugiment proiektuan. Jarduera guztiak antolatzeko oinarri izan daitezke. Komunitatearekin harreman zuzena duten gizarteko eremu desberdinetako pertsonak pertsona ez-aktiboen errealitateari eta beharrei buruzko ikuspegi aberatsagoa eta osoagoa eman diezagukete.

Jarduera fisikoaren inguruko orientazio-zerbitzuak pertsona ez-aktiboek zuzendutako zerbitzuak dira. Bertara hurbil daitezke jarduera fisikoa egiteko behar duten aholkularitza, orientazioa eta laguntza jasotzeko, jarduera fisikoan aditua den pertsona baten eskutik, betiere, erregularitasunez egiteko ohitura hartu arte.

Informazio gehiagorako: <https://mugiment.euskadi.eus/inicio/>

2. 2020KO MEMORIAREN LABURPENA

Hauek izan dira 2020ko ondorio nagusiak:

- 89 sustatzailerekin elkarlanean aritu gara.
- Garrantzi handia eman zaio komunikazioari; Interneteko hainbat tresna erabili dira (webgunea, twitterra, buletina) eta koordinazio-bilerak egin dira 3 maila nagusitan (EAE, lurraldeak, toki-eremua).
- 33 sare eta 35 orientazio-zerbitzu egon dira martxan, baina COVID-19a dela eta, lan asko ezin izan dira garatu. Orientazio-zerbitzuetan egindako lanagatik NAOS saria jaso dugu.
- Azelerometria-azterketa bat jarri da abian, haurren eta gazteen arteko jarduera fisiko maila ezagutzeko. Gainera, mundu mailako Global Matrix ekimenean parte hartzen ari gara Active Healthy Kids Basque Country txostena eginez. Era berean, forma fisikoaren zaintza sustatzeko txostena egin dugu.
- Txosten bat egin dugu, atzerriko ereduetan oinarrituta, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia sortzeko.
- Txosten bat aurkeztu zaio Osasun Sailari, EAEko Osasun Inkestaren (EAEIO) jarduera fisikoaren atala hobetzeko.

Informazio gehiagorako: <https://labur.eus/Bh0gj>

3. 2021KO LAN-EGITARAUA

Zeharkako konpromisoez gain (berdintasuna, hizkuntza, ingurumena), hauek dira 2021erako aurreikusitako programak:

- Webgunean atal berri bat sortzea, baliabide jakin batzuk (gidak, bideoak, infografiak) eskura jartzeko eta nazioarteko dokumentu nagusiak euskaratzeko.
- Kiroleskolarekin lankidetzan, orientatzaileentzako prestakuntza-ekintza bat antolatzea.
- Active Healthy Kids Basque Country txostena amaitzea.
- Azelerometria-azterketarekin jarraitzea, azken txostena 2022ko urrian aurkezteko.

- Haurren eta nerabeen Eusfit Mugiment (EAEko zainketa-sistema) sortzeko proba pilotua egitea, horien garapen fisikorako eta motorrerako.
- EAEko jarduera fisikoaren maila ezagutzeko sistematik egokiena proposatzea, banaketa geografiko-administratiboak kontuan hartuta.
- Pandemiaren eraginpean geratu diren orientazio-sare eta -zerbitzuen lan-dinamikak berrabiarazten laguntzea.
- Koordinazio-bileretako dinamika berari jarraitzea.

Informazio gehiagorako: <https://labur.eus/Bh0gj>

4. AURREKONTUA

Ondorengo taulan, urte bakoitzeko aurrekontua dago laburbilduta:

	2018	2019	2020	2021
Diru-laguntzen deialdia	170.000,00	170.000,00	0,00	0,00
Idazkaritza Teknikoa	144.474,00	144.474,00	144.474,00	144.474,00
Kirol kudeatzailea	60.000,00	60.000,00	60.000,00	60.000,00
Community managerra	21.778,79	10.683,09	14.244,12	14.244,12
Beste komunikazio-euskarri batzuk	17.968,50	0,00	0,00	11.313,50
Webguneak / posta elektronikoa mantentzeko lanak	17.802,13	0,00	1.452,00	1.452,00
Ikerketa taldea	0,00	0,00	16.940,00	0,00
Azelerometria azterketa	0,00	0,00	19.057,50	35.392,50
Global Matrixen izena ematea	0,00	0,00	1.446,26	0,00
Itzulpenak	0,00	0,00	0,00	8.263,65
Eusfit aholkularitza zientifikoa				4.000,00
Eusfit materiala + webgunea				18.089,50
Guztira (BEZa barne)	432.023,42	385.157,09	257.613,88	297.229,27

5. 2013-2020KO JARDUERA AZPIMARRAGARRIAK

Mugiment proiektua abian jartzea nabarmendu beharreko ekimena da. Egia da hobetzeko aukera handiak daudela, baina aurrera egin da kirolaren eta osasun-sistemen arteko lankidetzan, eta, bestalde, Hezkuntzarekin elkarlanean hasi berri gara.